



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko otsailaren 8a

12. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeari eta baliatzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeko eta Nafarroan etxebizitzari babes ofiziala emateari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legeari beste xedapen gehigarri bat gehitzeko. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, jakiteko Nafarroako Gobernuak legegintzaldian zehar zer politika garatu behar duen, klima aldaketari aurka egiteko nazioarteko konpromisoak Nafarroako Foru Komunitatean betetzeko, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak egina (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa protokolo bat ezar dezan, hildako etorkinen gorpuak jatorrizko herrialdera eramatea errazteko. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait prestazio sar ditzan etorkizuneko gizarte zerbitzuen zorroan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez diezaion zentrala abian jartzeko baimenik eman Elerebro-Hidrocantábrico enpresari. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren zuzenak egin ditzan AP-68 autobidearen emakida-hartzailearekin, Lodosan sarbide bat egiteko, Bilboko norabidean. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Osasun Departamentuaren aurreikuspenei buruzkoa, erizain laguntzaile izateko oposizioko lanpostu hutsak aukeratu ahal izateko, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (9. or.).

- Galdera, Altsasuko osasun etxearen toki fisikoa eta bertan ematen diren zerbitzuen kopurua handitzeari buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (9. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariak Nafarroako Museoari dagokionez erabiltzen dituen hizkuntza irizpideei buruzkoa, Paula Kasares Corrales andreak egina (10. or.).
- Galdera, Gobernuaren denbora eta diru aldetiko aurreikuspenei buruzkoa, San Adriánen 0 eta 3 urte bitarteko ziklo bat abian jartzeko, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Gobernuaren denbora eta diru aldetiko aurreikuspenei buruzkoa, San Adriánen osasun etxe berri bat eraikitzeko, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (11. or.).
- Galdera, Gobernuaren denbora eta diru aldetiko aurreikuspenei buruzkoa, San Adriánen ikastetxe publiko berri bat eraikitzeko, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (12. or.).
- Galdera, Gobernuak San Adriángo hiri antolamendurako plan berria behin betikoz onesteko behar den aginduzko txostena egitea eragotzi duten arrazoiei buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (12. or.).
- Galdera, itxaron zerrendei konponbidea emateko egin diren aparteko orduekin zerikusia duten zenbait daturi buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (13. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak lehendakariak babesten ote dituen Jaime Ignacio del Burgo jaunak “M-11” kasua dela-eta eginiko adierazpenak. Galdera erretiratzea (14. or.).
- Galdera, arteak bulkatzeko egitasmoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, iragandako irailaren 15ean emakume batek jasan zuen erasoaren ondotik Foruzaingoak abian jarritako esku-hartze protokoloari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak eta Europar Batasuneko erakundeek enplegu plana garatzeko jarritako zenbatekoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, enplegu planaren aurrekontu betetzearen kontusail bakoitzaren xehakatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emeleak:

- 3/2007 Legegintzako Foru Dekretua, abenduaren 10ekoa, tributu harmonizaziokoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena (18. or.).
- 1/2008 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 14koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena (24. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeari eta baliatzeari buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 4an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1.- 2008ko martxoaren 25eko eguerdiko hamabiak arte luzatzea Etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeari eta baliatzeari buruzko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea. Aipatu foru lege proposamena

2007ko urriaren 23ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, Etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeko eta Nafarroan etxebizitzari babes ofiziala emateari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legeari beste xedapen gehigarri bat gehitzeko.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 4an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1.- 2008ko martxoaren 25eko eguerdiko hamabiak arte luzatzea Etxebizitza eskuratzeko eskubide subjektiboa aitortzeko eta Nafarroan etxebizitzari babes ofiziala emateari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legeari beste xedapen gehigarri bat gehitzeko Foru Lege proposamenari

zuzenketak aurkezteko epea . Aipatu foru lege proposamena 2007ko urriaren 29ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, jakiteko Nafarroako Gobernuak legegintzaldian zehar zer politika garatu behar duen, klima aldaketari aurka egiteko nazioarteko konpromisoak Nafarroako Foru Komunitatean betetzeko.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, jakiteko Nafarroako Gobernuak legegintzaldian zehar zer politika garatu behar duen, klima aldaketari aurka egiteko nazioarteko konpromisoak Nafarroako Foru Komunitatean betetzeko.

2. Jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

JABELDURAREN TESTUA

Patxi Zabaletak eta Maiorga Ramírezek, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 181. artikulua eta hurrengo babesean, honako jabeldura hau aurkeztu diote Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Nafarroako Gobernuak legegintzaldian zehar zer politika garatu behar duen, klima aldaketari aurka egiteko nazioarteko konpromisoak Nafarroako Foru Komunitatean betetzeko. Orobat jakin nahi dugu zer estrategia berariazko eta zer konpromiso zenbakarri dituen Nafarroan atmosferara isurtzen diren gas kopuruak murrizteko.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa protokolo bat ezar dezan, hildako etorkinen gorpuk jatorrizko herrialdera eramatea errazteko.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita jarduketa protokolo bat ezar dezan, hildako etorkinen gorpuk jatorrizko herrialdera eramatea errazteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko eledun Ion Erro Armendárizek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Nafarroan bizi diren familia atzerritarrek beren kide bat jatorrizko herrialdean lurperatu nahi badute, gastu handiei egin behar diete aurre; Hegoamerikako etorkinen kasuan, gastua 6.000 euro ingurukoa izaten da.

Zenbait aseguru-etxe arduratzen da heriotza kasuan gorpua aberriratzeaz, baina garestiegia gertatzen da eta etorkinek ia ez dute zerbitzu hori

erabiltzen. Orain gutxi, Nafarroan, genero indarkeriaren ondoriozko heriotza bat izan dugu; emakume brasildar baten heriotza, hain zuzen. Brasilek ez du bere gain hartzen gorpuren aberriratzea. Beraz, hildakoen familiaratekoak, sorterrian lurperatzeko laguntzarik jasotzeari edo ez jasotzeari dagokionez, jatorriko herrialdearen irizpidearen baitan gelditzen dira. Horietako askok mailegua eskatu behar izaten dute, edo lagunen nahiz herrikideen laguntza galdetu, edota, bestela, gorpua sorterrira eramateko asmoa baztertu dirurik eza-gatik.

Pertsona horiek denbora asko behar izaten dute, batetik, aberriratzea ordaintzeko behar den dirutza lortzeko eta, bestetik, aberriratzea gauzatzeko administrazio-izapideak egiteko. Hori horrela, familiarateko eta/edo lagun baten heriotzari aurre egin beharrak eragiten duen egoera gogorra are gogorragoa bihurtzen da eta, gainera, gorpuk denbora gehiago egon behar izaten duenez gorpuegian edo ehorztetxean, kostu ekonomikoa ere areagotu egiten da sarritan.

Espanian gertatzen diren atzerritarren heriotzarik gehienak, zirkulazio istripuek, lan istripuek eta indarkeriak eraginak dira.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Immigraziorako Bulegoaren bidez eta Nafarroan dauden etorkinen elkarten bidez jarduketa protokolo bat ezar dezan hildako etorkinen gorpuen aberriratzea errazteko, eta administrazio-izapideetarako laguntza eman dezan bai eta aberriratze horri aurre egiteko zailtasun ekonomikoak dituztenei ere laguntza ekonomikoak eman diezazkien.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 25ean

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait prestazio sar ditzan etorkizuneko gizarte zerbitzuen zorroan.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita zenbait prestazio sar ditzan etorkizuneko gizarte zerbitzuen zorroan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Gizarte zerbitzuen zorroa Nafarroako gizarte zerbitzuen sistemaren funtsezko tresnetako bat da. Gure ustez, egun dagoen zerbitzuen zorroa zuhurreria da prestazioak zehaztean; izan ere, prestazio batzuk bermatutzat jotzen dira eta beste batzuk ez bermatutzat, eta, aldi berean, gaur egun eskaintzen diren zenbait prestazio ahaztu egiten dira.

Bermatuta ez dauden prestazioak, beraz, egokitzen den Gobernuaren borondate onaren esku gelditzen dira; izan ere, urteko aurrekontuaren menpe egonen dira, eta, noski, administrazioari ezinen zaizkio exijitu, ez baitago horiek jasotzeko eskubidea.

Gaur egungo prestazioen zerrendan, azpimarratzekoak dira beharrei aurre egiteko ematen diren laguntza ekonomikoak; izan ere, horrela ez da aurrera egiten orain arte ezagutzen ditugun baliabideak sendotzeko eta baliabide berriak eta hobeak eskaintzeko bidean.

Adierazgarria da 2008rako aurrekontuetan, kontusailik handienak zerikusia izatea menpeko pertsoneri beren bizilekuan bertan laguntza ematearekin, eta ez, aldiz, pertsona horiei laguntza emateko zerbitzu publiko batekin.

Ez da kasualitatea desberdintasun hori izatea, besteak beste, gure talde politikoak aldeztu izan duen gai nagusietako bat. Kalitateko zerbitzu gisa planteatu izan dugu, kontrol publikoarekin eta langile kualifikatuek eta behar bezala araututako lan baldintzetan gauzatua, saiatu behar baita ilunpean egiten den lana –funtsean emakumeek egiten dute– azaleratu dadin.

Gure ikuspegitik, honakoak dira Gobernuak proposatutako zerbitzuen zorroak dituen alderdi ahulak:

– Menpekotasunari aurrea hartzea

Gure ustez, proposatzen den prestazioen sistemak ez du prebentzio- eta erkidego-izaerarik. Aldiz, zentzuzkoena litzateke toki entitateek gauzatutako prebentzio-ekintzak bultzatzea, gizarte-ehun aktibo bat sortzeko eta gure erkidegoko herritar askok dituzten zailtasunak ekiditeko.

– Prestazio ekonomikoa

Hori da zerbitzuen zorroaren berritasuna. Erabaki horrek Gobernuari bidea ematen dio laguntza-sare dibertsifikatu bat zuzenean kudeatzeko duen ardura saihesteko; izan ere, menpekotasuna duen pertsonari laguntza bere etxean eman beharrean, laguntza ezegonkorra jasotzeko bidea irekitzen da laguntza ona bermatzen ez duten laguntza ekonomikoak emanez

– Udal arloko etxeko laguntza

Zerbitzu hori alda liteke, halako moduz non menpekotasun handiko eta larriko pertsoneri laguntza ematera soilik bidera litekeen, oraingo erabiltzaileez ahaztuz, hau da, beren kasa moldatzeko eta etxean bizitzen jarraitzeko babesa behar duten pertsonen ahaztuz.

– Osasun sistemaren inplikazio urria menpekotasunaren gaian

Arazo kronikoak dituzten pertsonen laguntzaren ardura Gizarte Gaietako Departamentuari pasa zaio, proiekturik garatu gabe eta horien beharrei aurre egiteko aurrekontu-handitzerik gabe. Modu

honetara, menpekotasuna duten pertsona batzuk –adimen-osasuneko arazoak dituztenak, alkohola-ekin eta beste droga batzuekin arazoak dituztenak eta GIBak jotako pertsonak– soilik familiartekoen laguntza izatera behartuta gelditzen dira.

– Laguntza-zerbitzuak laguntza ekonomikoekin ordeztea

Zerbitzuen zorroak, gure iritzian, menpekotasuna duen pertsonari bermatu behar dio laguntza-zerbitzuak eskuratu ahal izatea, eta soilik salbuespen gisa jaso behar du ordezeko prestazio ekonomikoa, eta urtebeteko denbora mugarekin.

– Zerbitzuen kudeaketak publikoa, zuzena eta dezentralizatua izan behar du.

Laguntzaren unibertsalizazioa ardura publikoa da. Zorroan zehaztu beharra dago Nafarroako administrazio publikoek zuzenean zer kudeatzeko konpromisoa hartzen duten, eta zerbitzuen hedapenean zer zeregin izanen duten toki entitateek eta ekimen pribatuak.

Nafarroako administrazio guztien eta irabazi asmorik gabeko erakundeen inplikazio zuzenaren aldeko apustu berezia egiten du Ezker Batuak. Menpekotasunaren arloko zerbitzuak merkatura-

tzen eta pribatizatzen joan dira eta, gure ustez, Nafarroan orekatu egin behar da hori, eta gizarte ekimenera pasatzen joan zailtasunak dituzten pertsonentzako laguntza.

Aipatutako arrazoiak direla-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du etorkizuneko gizarte zerbitzuen zorroak ondokoak jaso ditzan: mendekotasunari aurrea hartzea, udal arloko etxeko laguntza, osasun sistemaren inplikazioa mendekotasunaren gaian, laguntza-zerbitzuak laguntza ekonomikoekin ordeztea (salbuespen gisa), zerbitzuen kudeaketak publikoa, zuzena eta dezentralizatua izan behar duela eta Nafarroako administrazio guztien inplikazio zuzenaren aldeko apustu berezia. Nafarroako Parlamentuaren ustez, alderdiok jasota eskaintza nabarmen hobetuko da eta gizarte zerbitzuen eskaintza integral bat gauzatuko da, gizarte zerbitzuen zorroari dagokionez prebentzioa, administrazioaren inplikazioa eta zerbitzuen hedapena funtsezkotzat jotzen duen eskaintza bat.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 28an

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ez diezaion zentrala abian jartzeko baimenik eman Elerebro-Hidrocantábrico enpresari.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ez diezaion zentrala abian jartzeko baimenik eman Elerebro-Hidrocantábrico enpresari.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioak

Castejónen Elerebro-Hidrocantábrico enpresak sustatzen duen ziklo konbinatuko zentrolean energia elektrikoa ekoizteko jarduerari ingurumen baimen integratua ematearen kontrako epaia eman du orain dela gutxi Nafarroako Auzitegi Nagusiak.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, eztabaidatu eta bozka dadin:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aipatu zentrala abian jartzeko baimen berririk eman ez diezaion Elerebro-Hidro-cantábrico enpresari.

2. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gober-

nua premiatzen du ez dezan jaulkipen-baimenik eman aipatu zentrala abian jartzeko.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan AP-68 autobidearen emakida-hartzaileekin, Lodosan sarbide bat egiteko, Bilboko norabidean.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan AP-68 autobidearen emakida-hartzaileekin, Lodosan sarbide bat egiteko, Bilboko norabidean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Roberto Jiménez Alli, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunak, parlamentu-talde horren izenean eta Legebiltzarreko Erregelamenduko 195., 196. eta 197. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Legebiltzarraren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko; horren bitartez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren zuzemenak egin ditzan AP-68 autobidearen

emakida-hartzaileekin, Lodosan sarbide bat egiteko, Bilboko norabidean.

Zioen azalpena

A-68 autobidean (egun AP-68) sartu eta irtete-ko Lodosa-Zaragoza lotunea 2003an eraiki zen. Lotune hori, erdi-norabidekoa, ika-mika iturri izan zen eskualde horretan; izan ere, uste zen norabide bakarreko lotune bat, Zaragozarantz joateko alegia, eraikitzeak ez ziola erantzuten jendeak uste zuenari.

Foru Komunitateko eskualdeen lurralde- eta ekonomia-garapenean laguntzeko, ezinbestekoa da botere publikoek jadanik badauden azpiegituren erabilera erraz dezaten eta azpiegitura horiek, nahiz eta doakoak izan ez, ahalik eta erabilgarriak izan daitezen lurralde horietako ekonomiarako eta biztanleentzat.

Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du abian jar ditzan beharrezkoak diren elkarrizketak, AP-68 autobidearen "Autopista Vasco-Aragonesa" izenekoa- emakida-hartzaileekin akordio bat lortu ahal izate aldera, Lodosan sarbide berri bat egiteko, Bilboko norabidean, hartara osatu egingen baita bide-une horretan Zaragozako norabidean dagoen lotunea.

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 31n

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

F saila:
GALDERAK

Galdera, Osasun Departamentuaren aurreikuspeni buruzkoa, erizain laguntzaile izateko oposizioko lanpostu hutsak aukeratu ahal izateko.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, Osasun Departamentuaren aurreikuspeni buruzkoa, erizain laguntzaile izateko oposizioko lanpostu hutsak aukeratu ahal izateko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak Osasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

Noiz aurreikusten du zure Departamentuak aukeratu ahal izanen direla erizain laguntzaile izateko oposizioko lanpostu hutsak?

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 25ean.

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

Galdera, Altsasuko osasun etxearen toki fisikoa eta bertan ematen diren zerbitzuen kopurua handitzeari buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, Altsasuko osasun etxearen toki fisikoa eta bertan ematen diren zerbitzuen kopurua handitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilariak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Parlamentari honek galdera egin zuen Altsasuko osasun etxearen toki fisikoa eta bertan ematen diren zerbitzuen kopurua handitzeko Osasun Departamentuak hartu behar dituen neurri zehatzetara buruz. Emandako erantzunean, kontseilariak egin nahi diren jarduketak aipatzen ditu, esate baterako lekua handitzea, klimatizazioa, sanea-

mendua, azpiegiturak eta ekipamendua hobetzea eta abar. Erantzunean, ordea, kontseilariak ez ditu jarduketa horiek zehazten.

Hori dela-eta, izenpetzen duen parlamentariak honako galdera egiten du, ahoz erantzuteko:

Zehazki, leku-handitze hori zertan datza? Zer hobekuntza proposatzen ditu eta zer epetan egingen dira?

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariak Nafarroako Museoari dagokionez erabiltzen dituen hizkuntza irizpideei buruzkoa.

PAULA KASARES CORRALES ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Paula Kasares Corrales andreak aurkeztutako galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariak Nafarroako Museoari dagokionez erabiltzen dituen hizkuntza irizpideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Paula Kasares Corralesek, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko

araudian xedatutakoaren arabera, Nafarroako Museoa dela eta, ondoko galderak hau egin nahi ditu Kultura eta Turismo-Vianako Printzea Erakundea Departamentuko Kontseilariak izen bereko batzordean ahoz erantzun diezaien.

– Zer hizkuntza irizpideri jarraitzen dio Kultura kontseilariak Nafarroako Museoan? Zergatik museo etxearen kanpoko aldean dagoen Museo de Navarra izena, atean dagoen ordutegia eta barne seinaletika gaztelaniaz baino ez dago?

– Egunotan Nafarroako Museoan “La tierra te sea leve. Arqueología de la muerte en Navarra” erakusketa dago ikusgai. Aipatu erakusketa zergatik ez da Nafarroako bi hizkuntzetan egin? Hau da, museoaren kanpoko aldeko promozio oihal handia nola museoaren barneko erakusketaren edukiaren azalpenak ematen dituzten panelak, zergatik egin dira gaztelania hutsean?

Iruñean, 2008ko ilbeltzaren 31n

Foru parlamentaria: Paula Kasares

Galdera, Gobernuaren denbora eta diru aldetiko aurreikuspenei buruzkoa, San Adriánen 0 eta 3 urte bitarteko ziklo bat abian jartzeko.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Gobernuaren denbora eta diru aldetiko aurreikuspenei buruzkoa, San Adriánen 0 eta 3 urte bitarteko ziklo bat abian jartzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, eta idatziz erantzun diezaioten eskatzen du:

San Adriángo herria haur hezkuntzako 0tik 3 urtera bitarteko zentro bat eraiki dezan ari zaio eskatzen Nafarroako Gobernuari, herrian adintarte horretan dagoen hezkuntza premia gero eta handiagoari erantzuteko.

Hori dela eta, hau jakin nahi dugu:

Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen du, denboraren eta ekonomiaren aldetik, San Adriánen 0tik 3 urtera bitarteko zikloa abian jartzeari dagokionez?

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, Gobernuaren denbora eta diru aldetiko aurreikuspenei buruzkoa, San Adriánen osasun etxe berri bat eraikitzeke.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Gobernuaren denbora eta diru aldetiko aurreikuspenei buruzkoa, San Adriánen osasun etxe berri bat eraikitzeke.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, eta idatziz erantzun diezaioten eskatzen du:

San Adriángo herria oinarrizko osasun laguntzako osasun etxe berri bat eraiki dezan eskatzen ari zaio Nafarroako Gobernuari, egungoa saturatua dagoelako.

Hori dela eta, hau jakin nahi dugu:

Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen du, denboraren eta ekonomiaren aldetik, San Adriánen osasun etxe berri bat eraikitzeari dagokionez?

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, Gobernuaren denbora eta diru aldetiko aurreikuspenei buruzkoa, San Adriánen ikastetxe publiko berri bat eraikitzeko.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Gobernuaren denbora eta diru aldetiko aurreikuspenei buruzkoa, San Adriánen ikastetxe publiko berri bat eraikitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galde-

ra hau egin du, eta idatziz erantzun diezaioten eskatzen du:

San Adriángo biztanle kopurua etengabe ari da hazten. Hirigintza antolamenduko planean aurreikusten da hurrengo urteetan asko haziko dela biztanle kopurua (egungo 6.000 biztanletik 16.000 biztanlera igaro liteke). Herriak dituen beharrezarik bat da, jadanik aldarrikatua, ikastetxe berri bat eraikitzearena, egungo eskariari erantzun eta berehalako etorkizunean herrian egon daitekeena-ri aurre egingen diona.

Hori dela eta, hau jakin nahi dugu:

Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen du, denboraren eta ekonomiaren aldetik, San Adriá-
nen ikastetxe publiko berri bat eraikitzeari dago-
kionez?

Gobernuak aintzat hartzen al du herrian bi ikastetxe publiko sustatzeko aukera, derrigorrezko hezkuntzaren eskari guztiari aurre egiteko?

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, Gobernuak San Adriángo hiri antolamendurako plan berria behin betikoz onesteko behar den aginduzko txostena egitea eragotzi duten arrazoiei buruzkoa.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Gobernuak San Adriángo hiri antolamendurako plan berria behin betikoz onesteko behar den aginduzko txostena egitea eragotzi duten arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, eta idatziz erantzun diezaioten eskatzen du:

2007ko otsailaren 27an, San Adriángo Udalak hasiera batez onetsi zuen herriko Hirigintza antolamenduko plan berria. Hamaika hilabete igaro

dira, eta Nafarroako Gobernuak ez du prestatu hasierako onespren horri buruzko txostena.

Hori dela eta, hau jakin nahi dugu:

Gaur arte, zer arrazoik eragotzi dute behin betiko onetsi ahal izateko beharrezkoa den txostena egitea Nafarroako Gobernuak?

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 29an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, itxaron zerrendei konponbidea emateko egin diren aparteko orduekin zerikusia duten zenbait daturi buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, itxaron zerrendei konponbidea emateko egin diren aparteko orduekin zerikusia duten zenbait daturi buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du.

Zioen azalpena

Itxaron zerrenden arazoa aparteko orduak –medikuen jargoian “peonada” deritzenak– eginez hein batean konpontzeko joera dago. Gure ustez, formula hori ezin da itxaron zerrenden arazoa konpontzeko behin betiko formula izan.

Beharbada, bide hori bertan behera uzten bada Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak egiturazko erabakiren bat hartu beharko du, itxaron zerrenden arazoa ez baita iragankorra.

Nafarroako Gobernuak ondokoei erantzutea nahi dut:

– Zenbat “peonada” egin dira 2006an eta 2007an?

– Zenbateko kostua ekarri dio horrek Osasunbideari?

– Zein da Osasunbideko itxaron zerrendak arintzeko laguntzako sendagile baten lan kontratuak duen batez besteko kostua?

Iruñean, 2008ko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuko lehendakariak babesten ote dituen Jaime Ignacio del Burgo jaunak “M-11” kasua dela-eta eginiko adierazpenak.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

José Luiz Izco Biarte jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Jaime Ignacio del Burgo jaunak “M-11” kasua dela-eta eginiko adierazpenak babesten ote dituen jakite-

koa, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea.

Galdera hori 2008ko otsailaren 1eko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Galdera, arteak bulkatzeko egitasmoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du arteak bulkatzeko egitasmoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 11ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako Patxi Telletxea Ezkurra foru parlamentariak Arteak Bultzatzeko Planari buruz egindako galderari erantzunez, honako hau adierazi du Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariak:

1. Planean aurreikusitako jardueren xehetasunak

– Arte-heziketarako, arte-sorkuntzarako eta arte-lanen ekoizpen eta hedapenerako laguntzak ematea.

Arteak Bultzatzeko Plana ezartzean, laguntzak emateko beste 4 deialdi egingen dira (ikasketak zabaltzeko laguntza, Vianako Printzea Beka, sorkuntza-guneak alokatzeko laguntza eta arte eszenikoak sustatzeko laguntza); horrez gain, orain

arteko ia deialdi guztietako dirulaguntzen zenbatekoa handitu egingen da. Hau da, 2006an, arte-heziketarako, -sorkuntzarako eta -ekoizpenerako dirulaguntzetan 1.236.000 euro eman ziren, eta, beraz, plana aplikatu eta gero, 2007an, 1.463.000 eurora iritsi da; 2008. urtean, berriz, 2.714.000 euro bideratuko dira xede horretarako.

– Nafarroako artista garaikideei buruzko monografiak argitaratzea.

Arteak Bultzatzeko Planean, halaber, argitalpen monografikoen bi bilduma sortzea aipatu da, Nafarroako artista garaikideetan oinarrituak, hain zuzen; bildumak artistaren eta alor bakoitzeko adituaren arteko zuzeneko elkarrizketan oinarrituko dira, horrela pertsonariari buruzko lehen eskuko informazioa lortu, lan artistikoaz duen ikuspegia ulertu, eta ikuspegi hori begien laguntzaz irudikatu ahal izanzen baita.

Maior bildumari dagokionez, jada, Juan Jose Aquerretari buruzko lana argitaratu da, eta Pedro Salaberri buruzkoa argitaratze-prozesuan dago.

Minor bildumako lehenengo lana ere dagoeneko argitaratu dute, eta David Rodriguez jauna izan du oinarri.

– Kudeaketarako administrazio-egitura bat eta Programa Batzordea sortzea.

Departamentuaren egitura organiko berrian –irailaren 3ko 126/2007 Foru Dekretuaren bidez onartua– Deialdiak eta Laguntzak atala sortu da,

Kultura-ekintza zerbitzuaren baitan; dituen funtzioen artean, besteak beste, deskribatutako laguntza-programen kudeaketa dago.

Bestalde, Arteak Bultzatzeko Plana ikuspegi oso eta erlazionatuarekin antolatzeke, Programa Batzordea sortuko da; batzorde horretako lehendakaria Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria izanen da, eta, horrez gain, honako ordezkari hauek osatuko dute: Kulturako zuzendari nagusiak, Kultura-ekintza zerbitzuko zuzendariak eta Nafarroako Kultura Kontseiluko sei kidek.

– Gazte sortzaileen erakusketak antolatzea

Bi erakusketa eginen dira, eta, bertan, diruz lagundutako 4 proiekturen emaitza bildu eta erakutsiko da; proiektu horiek, hain zuzen, arte plastiko-eta eta argazkilaritzako lanak sortzeko dirulaguntza-deialdien bidez lortu zuten dirua.

– Arteak Bultzatzeko Planari buruzko web orri bat egitea.

– Arteari buruzko dokumentazio-zentro bat sortzea.

2. Planaren xedea

Nafarroako artisten gaitasunak sustatzen laguntzea, honako hiru oinarri hauek dituen plana-

ren bidez: heziketa, sormena eta ekoizpena/hedapena.

Administrazioak bere gain hartu du gure foru-erkidegoan dagoen sormen-energia bultzatzeko funtzioa; horretarako, diziplinartekotasuna, arte-hizkuntzekiko joera mestizoa, libre egoteko ahalmena, eta hainbat diziplinaren arteko kutsadura eta simetria izanen ditu oinarri.

3. Xede horretarako izanen den aurrekontua

2.894.000 euro emanen dira, guztira, honako jarduera hauek egiteko: heziketarako, sorkuntzarako eta ekoizpen/hedapenerako laguntza eman, monografiak argitaratu, erakusketak antolatu, web orria egin eta dokumentazio-zentroa sortu.

4. Hori egiteko izanen den epea

Arteak Bultzatzeko Plana 2007an jarri da abian, eta, 2008an erabat gauzatuko da.

Beraz, hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko urriaren 31n

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, iragandako irailaren 15ean emakume batek jasan zuen erasoaren ondotik Foruzaingoak abian jarritako esku-hartze protokoloari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du iragandako irailaren 15ean emakume batek jasan zuen erasoaren ondotik Foruzaingoak abian jarritako esku-hartze protokoloari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 5eko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Irailaren 15ean emakume batek jasandako erasoaren ondoren Foruzaingoak jarraitutako esku-hartze protokoloari buruz Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egindako galderari erantzunez (Nafarroako Parlamentuko Mahaiak izapidetzeko onartu zuen 2007ko urriaren 1ean), Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak honako hau adierazi du:

Hasteko, adierazi nahi da galderan aipatu den kasuan foruzainek oro har zehaztutako protokolo guztiak jarraitu zituztela, Zigor Kodean eta Prozedura Kriminalaren Legean araututakoari jarraiki; horrez gain, beste hainbat gai ere bermatu ziren: biktimari berehalako laguntza ematea, delituen

jarraipena egitea, frogak ziurtatzea eta ekintzaren egilea atxilotzea.

Polizia-ekintzei dagokien konfidentziasuna eta ekintza horietan erabilitako datu pertsonalak babestu egin behar dira, bai eta ikerketa zuzenean edo zeharka oztopa dezakeen edozein gai zaindu ere; hala eta guztiz ere, esan daiteke erasoaren berri ematen zuen deia irailaren 16ko 00:30ean jaso zela, eta, berehala, Foruzaingoak horrelako kasuetarako prestatuta duen prozedura abian jarri zela. Eraso gertatu zen lekura iristean (Gipuzkoa etorbidea), biktimak artatu zen, eta handik Iruñeko ospitale batera eraman zuten; horrez gain, hiru gizon identifikatu eta atxilotu zituzten.

Beharrezko zuen osasun-laguntza eman ondoren, biktima Foruzaingoaren Komisaria Nagusira eraman zuten, deklaratu zezan. Biktimak egin zituen adierazpenak oinarri hartuta, salaketa jarri zen, eta, horrez gain, gainerako eginbeharrak gauzatu ziren, gerora polizia-atestatuan islatu zirenak.

Atestatu hori, hain zuzen, zegokion Instrukzioko Epaitegira bidali zen. Segidan, auzoko oinarrizko gizarte-zerbitzuak Foruzaingoarekin harremanetan jarri ziren, biktimak atxilotuen errepresalia jasotzeko zuen beldurraren berri emateko; ondorioz, instrukzio-agenteak jakinaren gainean jarri zuen epaitetikiko titularra, berehala eta zuzenean. Biktimak Epaitegira aurkezteko deia jaso zuen, bere egoeraren berri eman ondoren bere burua babesteko beharrezko iruditzen zitzaizkion kautela-neurriak eskatu ahal izan zitzaizkien. Hala egin zuen, eta, agintari judizialak neurri horiek onartu eta gero, zegokion auzoko unitateari jakinarazi zitzaizkien.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2007ko urriaren 24an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

Galdera, Nafarroako Gobernuak eta Europar Batasuneko erakundeek enplegu plana garatzeko jarritako zenbatekoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak eta Europar Batasuneko erakundeek enplegu plana garatzeko jarritako zenbatekoei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 11ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako Maiorga Ramirez Erro foru parlamentariak Enplegu Plana betetzeko Nafarroako Gobernuak zuzenean ematen duen diru-kopuruari eta Europako erakundeek ematen dituzten kopuruei buruz egin duen informazio-eskaerari erantzunez, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariak honako hau adierazi du:

Aipatutako gaiak Nafarroako Gobernuak Enplegu Plana betetzeko zuzenean ematen dituen kopuruei eta Europako erakundeek ematen dituztenei egiten zien erreferentzia.

Beraz, urtez urteko kopuruak kontuan hartuz, honako hau da banaketa:

1. 2005eko ekitaldiko aurrekontuak:

Enplegu Planaren aurrekontua: 142.907.915 euro.

EBrekin batera egindako finantziazioa: 5.523.001 euro.

EBren ekarpena %3,86 izan zen.

2. 2006ko ekitaldiko aurrekontuak:

Enplegu Planaren aurrekontua: 144.898.322 euro.

EBrekin batera egindako finantziazioa: 3.783.403 euro.

EBren ekarpena %2,61 izan zen.

3. 2007ko ekitaldiko aurrekontuak:

Enplegu Planaren aurrekontua: 140.267.597 euro.

EBrekin batera egindako finantziazioa: 2.097.394 euro.

EBren ekarpena %1,49 izan da.

Iruñean, 2007ko urriaren 31n

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria.
José María Roig Aldasoro

Galdera, enplegu planaren aurrekontu betetzearen kontusail bakoitzaren xehakatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du enplegu planaren aurrekontu betetzearen kontusail bakoitzaren xehakatzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2007ko urriaren 11ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako Maiorga Ramírez Erro foru parlamentariak Enple-

gu Plana betetzeko kontusail bakoitzaren xehakatzeari buruz egin duen informazio-eskariari erantzunez, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariak honako hau adierazi du:

Kontusailak zehazten direneko taula erantsi da.

Iruñean, 2007ko urriaren 31n

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria.
José María Roig Aldasoro

(Oharra: aipatutako eranskina foru parlamentarien eskura dago Legebiltzarreko Zerbitzu Nagusien bulegoetan eta www.parlamento-navarra.es web orrian).

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

3/2007 Legegintzako Foru Dekretua, abenduaren 10ekoa, tributu harmonizaziokoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusita 3/2007 Legegintzako Foru Dekretua, abenduaren 10ekoa, tributu harmonizaziokoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, eta kontuan harturik Nafarroako Gobernari eta lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 54. artikulua eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 160. artikulua, hona erabakia:

1. 3/2007 Legegintzako Foru Dekretua, abenduaren 10ekoa, tributu harmonizaziokoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, eza gutzen duela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

3/2007 Legegintzako Foru Dekretua, abenduaren 10ekoa, tributu harmonizaziokoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Komunitateak, tributuen arloko bere ahalmena Balio Erantsiaren gaineko Zergaren eremuan erabiltzen duenean, Estatuko lurraldean une bakoitzean indarra duten oinarritzko printzipio, arau substantibo eta formazko arau berberak aplikatu behar ditu, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 32. artikulua dioenez. Horregatik Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abendu-

duaren 30eko 19/1992 Foru Legeko manuak aldatu behar izaten ditu, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko araubide arruntan egiten diren aldaketei egokitzeko.

Abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak, Nafarroako Gobernuak eta haren lehendakariak emanak, 54.1 artikuluan xedatzen duenez, tributu araubide arruntaren erreformaren batek, Hitzarmen Ekonomikoan ezarrita dagoen bezala, Foru Komunitatea ere Estatuko arau substantibo eta formal berriak aplikatzera behartzen duenean, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuaren delegazioa dela bide, foru legearen mailako arauak ematen ahal ditu, tributuen arloko foru legeetan behar diren aldaketak egiteko. Legegintzarako delegazio hori egintzat joko da Estatuko tributu arauen aldaketak argitaratuz gero.

Zerga iruzurrari aurrea hartzeko neurriei buruzko azaroaren 29ko 36/2006 Legeak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatu du, besteak beste. Araubide berezi bat gehitu du, entitate taldearena, hain zuzen. Balio Erantsiaren gaineko Zergan ezarritako figura hori Sozietateen gaineko Zergako zerga-bateratzearen araubidearen antzekoa da, eta helburu bera du. Enpresa taldeak benetako unitate ekonomikotzat hartzen ditu. Juridikoki independenteak diren sozietateez osatuak egon arren, enpresa taldeak hirugarrenekin dituzten harremanetan enpresa unitate edo ekonomia unitate gisa agertzen dira.

Entitate taldearen araubide berezi hori borondatezkoa da, eta aplikazioari dagokionez bi modalitate edo maila ditu. Lehenbizikoan araubide bereziak eragin finantzario hutsa du. Izan ere, taldeko entitateek aurkezten dituzten aitorten-likidazioei dagozkien saldo positibo edo negatiboen konpentsazioan datza. Bigarren modalitate edo maila taldearen barnean egiten diren eragiketen zerga oinarriari dagokio. Oro har, kargatu gabe uzten da

eragiketa horien balio erantsia, harik eta taldeko entitatearen batek taldetik kanpoko hirugarrenen batekin merkataritzako harremanak izan arte.

Iragan azaroaren 5ean Estatuko Administrazioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen ordezkariak, araubide berezi hau dela eta, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa erreformatzea adostu zuten. Erreforma horretan, beste gauza batzuen artean, entitate taldeek Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordaintzeko arauak ezartzen dira. Erreforma horren arabera, mendeko entitateak taldetik kanpokatzen joko dira BEZaren ondorioetarako, baldin eta entitate nagusiari aplikatu beharreko administrazio berekoak ez diren organoek ikuskatu behar badituzte, organoak foru administrazio batekoak izan nahiz administrazio arrunt batekoak izan.

Alderdi politikoen finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoak, bestalde, alderdi politikoei finantza laguntza emateko helburuarekin alderdi politikoei berek egiten dituzten ondasun-emate eta zerbitzu batzuk salbuetsita daudela dio.

Horregatik guztiagatik, aurrean aipatutako legegintzarako delegazioa baliatuz, zergak harmonizatzeko legegintzako foru dekretu baten bidez, behar diren arauak emanen dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzeko, abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 54.1 artikulua dionari jarraituz.

Zergak harmonizatzeko legegintzako foru dekretu honek atzera-eragina izanen du. Horrela, eredutzat hartzen dituen arau arruntekin batera izanen ditu ondorioak.

Entitate taldearen araubide berezia 2008. urtean aplikatzeari dagokionez, xedapen iragankorrean hauxe xedatu da: araubide berezia hautatzea erabakiz gero entitate nagusiak horren berri eman behar dio Nafarroako Zerga Ogasunari, 108 nonies artikuluko laugarren atalean ezarritakoaren arabera, eta jakinarazpen hori egiteko epea tributuak harmonizatzeko legegintzako foru dekretu hau indarrean jartzen den egunetik 2008ko urtarrilaren 31ra artekoa izanen da. Epe berean hartu behar dira administrazio kontseiluen edo pareko organoen erabakiak, 108 sexies artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

Horiek horrela, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak 2007ko abenduaren hamarreko bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

Artikulu bakarra.- Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeko artikulua batzuk aldatu dira, ondoren azaldu bezala:

Bat.- 17. artikuluko 1. idatz-zatiari 28gn zenbakia gehitu zaio:

“28gn. Alderdi politikoei beren xederako finantza laguntza emateko helburuarekin eta haien onura soilerako antolatzen diren agerraldiak direla eta alderdi politikoei egiten dituzten zerbitzuak eta ondasun-emateak.”

Bi.- 65. artikuluko 1. idatz-zatiari 8gn zenbakia gehitu zaio:

“8gn. Entitate taldearen araubide berezia.”

Hiru.- Foru Legearen VIII. tituluari IX. kapitulua gehitu zaio:

IX. KAPITULUA

Entitate taldearen araubide berezia

108 quinquies artikulua. Entitate taldearen araubide bereziko baldintza subjektiboak.

Bat.- Entitate talderen bateko kideak diren enpresaburu edo profesionalek entitate taldeen araubide berezia aplikatu ahal izanen dute, Hitzarmen Ekonomikoan ezartzen den moduan. Entitate taldetzat joko da entitate nagusi batek eta horren mendeko entitateek osatutakoa, betiere taldeko entitate guztiek Zergaren aplikazio lurraldean badute jarduera ekonomikoaren egoitza edo finkagune iraunkorra.

Enpresaburu edo profesionalak ezin izanen dira entitate talde batean baino gehiagotan aldi berean egon.

Bi.- Entitate nagusitzat joko da baldintza hauek betetzen dituen:

a) Berezko nortasun juridikoa izatea. Zergaren aplikazio lurraldean dauden finkagune iraunkorrak, hala ere, entitate nagusi izan ahalko dira, partaidetzak finkagune horiei lotuta dituzten entitateei dagokienez, idatz-zati honetan ezarritako gaineko baldintzak betetzen badituzte.

b) Beste entitate batean edo batzuetan kapitalaren %50eko partaidetza izatea gutxienez, zuzenean edo zeharka.

c) Partaidetza horrek urte natural osoan irautea.

d) Zergaren aplikazio lurraldean kokatuta dagoen eta entitate nagusi izateko baldintzak betetzen

dituen beste ezin entitateen mendekoa ez izatea.

Hiru.- Entitate nagusi ez diren enpresaburu edo profesionalak mendeko entitateetat joko dira Zergaren aplikazio lurraldean kokatuta badaude eta entitate nagusi batek haietan partaidetza badu, aurreko idatz-zatiko b) eta c) letretako baldintzak betetzen dituen. Zergaren aplikazio lurraldean dauden finkagune iraunkorrak beren horretan ezin dira inoiz ere mendeko entitate izan.

Lau.- Entitate batek beste batean Bi idatz-zatiko b) letran definitutako partaidetza eskuratzen badu, beste entitate hori entitate taldean sartuko da eta sarrerak hurrengo urtetik aurrera izanen ditu ondorioak. Entitate berriak, taldeko kide izateko baldintzak betetzen badituzte, eratzen diren unean bertan sartuko dira taldean.

Bost.- Mendeko entitate izateari uzten diotenak entitate taldetik irtengo dira, eta hori gertatzen den likidazioaldian bertan hasiko dira horren ondorioak.

108 sexies artikulua. Entitate taldearen araubide berezia aplikatzeko baldintzak.

Bat.- Entitate taldearen araubide berezia aplikatuko da aurreko artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten entitateek banan-banan hala erabaki eta araubide hori aplikatzea hautatzen dutenean. Hautuak gutxienez hiru urteko balioa izanen du, araubide berezia aplikatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen badira, eta uko egin ezean berez luzatuko da. Ukoa foru lege honen 108 nonies. Lau.1 artikuluan xedatutako moduan egin behar da. Ukoak gutxienez hiru urteko balioa izanen du, eta modu berean eginen da. Betiere, araubide berezia aplikatu ahal izateko baldintza izanen da entitate nagusiak araubide hori aplikatzea.

Bi.- Aurreko idatz-zatian aipatutako erabakiak entitateen administrazio kontseiluetan edo pareko organoetan hartu behar dira, araubide berezia aplikatuko den urte naturala hasi baino lehen.

Hiru.- Geroago taldean sartu eta araubide berezia aplikatzea erabakitzen duten entitateek aurreko idatz-zatietan azaltzen diren baldintzak bete beharko dituzte araubide hori lehenengoz aplikatuko duten urte naturala hasi baino lehen.

Lau.- Artikulu honetako Bat eta Bi idatz-zatietan aipatutako erabakiak garaiz eta behar den moduan hartzen ez dituzten entitateek ezin izanen dute entitate taldearen araubide berezia aplikatu, baina horrek taldeko gainerako entitateei ez die eragotziko araubide hori aplikatzea.

Bost.- Foru lege honen 108 octies artikuluko Bat eta Hiru idatz-zatietan xedatutakoa aplikatzea aukeratu ahal izanen du entitate taldeak, eta hala egiten badu 108 nonies. Lau.3 artikuluan ezarritako betebeharra izanen du.

Entitate talde berekoak izan eta araubide berezia aplikatzen duten entitateen multzoarentzat eginen da aukera hori, eta artikulu honetako Bi idatz-zatian xedatutako moduan egin beharko da.

Foru lege honen 108 octies. Bat artikuluan aipatutako eragiketei dagokienez, aukera hori eginez gero foru lege honen 17.1 artikuluan arautzen diren salbuespenei uko egin ahal izanen zaie; horrek ez du eragotziko entitate taldearen araubide berezia aplikatzen duten entitateen beste eragiketarik salbuestea. Salbuespenari uko egiteko erregelamenduz zehaztutako betekizun, muga eta baldintzak izanen dira.

108 septies artikulua. Entitate taldearen araubide berezirako eskubidea galtzeko arrazoiak.

Bat.- Kapitulu honetan arautzen den araubide berezia aplikatzeari utziko zaio arrazoi hauek direla eta:

1. Zergei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Legearen 42. artikuluan ezarritakoaren araberako zeharkako zenbatespenaren metodoaren aplikazioa berekin dakarren inguruabarren bat gertatzea.

2. Foru lege honen 108 nonies. Lau.3 artikuluan aipatzen den informazio sistema egin eta gordetzeko betebeharra ez betetzea.

Kapitulu honetan arautzen den araubide berezia arrazoi horiengatik ezin aplikatu izateak ez du eragotziko foru lege honen 108 nonies. Zazpi artikuluan aurreikusitako zehapenak ezartzea, bidezkoa denean.

Bi.- Aurreko idatz-zatian azaldutako arrazoiengatik entitate taldearen araubide berezia aplikatzeari uzten zaionean, horrek ondorioak sortuko ditu goian aipatutako inguruabarrak gertatzen diren likidazioaldian eta ondorengoetan. Likidazioaldi horretatik aurrera taldeko entitate guztiek bete beharko dituzte foru lege honetan ezarritako betebeharrak.

Hiru.- Likidazioaldi baten amaieran taldeko entitateen bat konkurtso egoeran edo likidazio prozesuan badago, entitate hori taldearen araubide berezitik kanpo geldituko da likidazioaldi horretatik aurrera. Betiere araubide berezia aplikatzen jarraitu ahal izanen dute horretarako baldintzak betetzen dituzten gainerako entitateek.

108 octies artikulua. Entitate taldearen araubide bereziaren edukia.

Bat.- Foru lege honen 108 sexies artikuluko Bost idatz-zatian ezarritako aukera erabiltzen denean, talde berekoak izan eta kapitulu honetan ezarritako araubide berezia aplikatzen duten entitateek elkarri egiten dizkieten ondasun eta zerbitzu emateen zerga oinarria honakoa izanen da: emate horiek egiteko zuzenean edo zeharka, osorik edo zati batean, Zerga ordainduz edo jasanez erabili diren ondasun eta zerbitzuen kostua. Erabilitako ondasunak inbertsio ondasunak izanez gero, horien kostua osorik egotzi behar da halako ondasunei dagozkien kuotak erregularizatzeko epean, foru lege honen 53. artikuluko 1. eta 3. idatz-zatietan ezarritako epean, alegia.

Hala ere, foru lege honen 47.- 74. bitarteko artikuluetan eta 66.ean xedatutakoari dagokionez, eragiketa horien balorazioa foru lege honen 26. eta 27. artikuluei jarraituz eginen da.

Bi.- Taldeko entitate bakoitzak, taldetik kanpoko entitateekiko eragiketetan, Zergari buruzko arau orokorrak beteko ditu, eta entitate taldearen araubideak ez du inolako eraginik izanen eragiketa horietan.

Hiru.- Foru lege honen 108 sexies artikuluko Bost idatz-zatian ezarritako aukera erabiltzen denean, artikuluko honetako Bat idatz-zatian aipatutako eragiketek jardueraren sektore berezia osatu dute eta sektore horri lotuzat joko dira eragiketa horiek egiteko zuzenean edo zeharka, osorik edo zati batean, Zerga ordainduz edo jasanez erabilitako ondasun eta zerbitzuak.

Enpresaburu edo profesionalak, foru lege honen 47.1 artikuluko laugarren paragrafoan xedatutakoa egin ordez, salbuespen gisa, osorik kendu ahal izanen dituzte eragiketa horietarako zuzenean edo zeharka, osorik edo zati batean erabiltzekoak diren ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko ordaindu edo jasan dituzten kuotak, baldin eta ondasun eta zerbitzu horiek kenkarirako eskubidea sortzen duten eragiketak egiteko erabiltzen badira, foru lege honen 40. artikuluan aurreikusi bezala. Ondasun eta zerbitzuak zertarako eskuratu diren kontuan hartuta eginen da kenketa, baina erabilera aldatzen bada zuzendu ahal izanen da.

Lau.- Kuota kengarrien zenbatekoa, entitate taldeko enpresaburu edo profesional bakoitzarentzat, foru lege honen VII. tituluko I. kapituluaren xedatutakoa eta aurreko idatz-zatian ezarritako arau berezia aplikatuz ateratzen dena izanen da. Kenketa horiek banaka eginen ditu entitate taldearen araubide berezia aplikatzen duten enpresaburu edo profesionaletako bakoitzak.

Enpresaburu edo profesional bakoitzaren kuota kengarriaren zenbatekoa zehaztu ondoren, haiek erabiliko dute kenkarirako eskubidea banan-banan, aipatutako kapituluaren eta tituluan xedatutakoaren arabera.

Enpresaburu edo profesionalen batek banakako aitorpen-likidazioaren batean konpentsatzeko saldoa izan eta saldo hori entitate talde osoaren aitorpen-likidazioan sartzen badu, ordea, zenbateko hori ezin izanen da konpentsatu ondorengo zergaldietako banakako aitorpen-likidazioetan, geroago entitate taldearen araubide berezia aplikagarria izan zein ez.

Bost.- Entitate taldeko entitateen batek egingandako eragiketei foru lege honetan araututako gainerako araubide berezietako baten bat aplikatzen ahal bazaio, eragiketa horiek araubide horietako kenkariaren arabidea izanen dute.

108 nonies artikulua. Berariazko betebeharrak entitate taldearen araubide berezian.

Bat.- Entitate taldearen araubide berezia aplikatzen duten entitateek kapitulu honetan ezarritako dauden zerga betebeharrak izanen dituzte.

Bi.- Entitate nagusia entitate taldearen ordezkaria izanen da Nafarroako Zerga Ogasunaren aurrean. Ordezkaria den aldetik, entitate nagusiak entitate taldearen araubide berezitik sortzen diren zerga betebeharrak material eta formal berariazkoak izanen ditu.

Hiru.- Bai entitate nagusiak bai mendeko entitate guztiek foru lege honen 109. artikuluan ezarritako betebeharrak izanen dituzte, zerga zorra ordaintzea edo konpentsazioa nahiz itzulketa eskatzea salbu; horri dagokionez, hurrengo idatz-zatian xedatutakoaren arabera jokatu behar da.

Lau.- Entitate nagusia, bere betebeharrak gainera, eta erregelamendu bidez ezartzen diren betekizun, muga eta baldintzekin, ondoko eginbeharren erantzulea izanen da:

1. Nafarroako Zerga Ogasunari informazio hauek ematea:

a) Foru lege honen 108 quinquies eta sexties artikuluetan eskatzen diren baldintzak bete eta erabakiak hartu direla eta artikuluko horietan aipatzen den araubide berezia aplikatzea aukeratu dela. Informazio horiek guztiak araubide berezia aplikatuko den urte naturala hasi aurretik aurkeztu behar dira.

b) Araubide berezia aplikatuko duten taldeko entitateen zerrenda. Taldeak aurreko urtean izandako osaera aldarazten duen entitateen bat bada-

go, identifikatu eginen da. Informazio hori abenduan eman behar da, hurrengo urterako.

c) Araubide bereziari uko egiten zaiola. Hori abenduan jakinarazi behar da, hurrengo urtean ondorioak izan ditzan, bai araubide berezia aplikatzen duten entitate guztiek uko egiten diotenean, bai banakako ukoa egiten denean ere.

d) Foru lege honen 108 sexies artikuluko Bost idatz-zatian ezarritako aukera egin dela. Hori abenduan jakinarazi behar da, hurrengo urtean ondorioak izan ditzan.

2. Entitate talde osoak aldiaren behin egin beharreko aitorpen-likidazioak aurkeztu behar dira, eta behar denean zerga zorra ordaindu, edo konpentsazioa nahiz itzulketa eskatu. Talde osoaren aitorpen-likidazio horiek barnean izanen dituzte entitate taldearen araubide berezia aplikatzen duten entitateen banakako aitorpen-likidazioak.

Entitate talde osoaren aldiroko aitorpen-likidazioak aurkeztu aurretik, entitate taldearen araubide berezia aplikatzen duten entitateek aldiro egin beharreko banakako aitorpen-likidazioak aurkeztu behar dira.

Entitate taldearen araubide berezia aplikatzen duten entitateen likidazioaldia hilabete naturala izanen da, haien eragiketen zenbatekoa gorabehera.

Baldin eta, likidazioaldi berean, entitate taldearen araubide berezia aplikatzen duten entitate batzuei konpentsatu beharreko saldoen guztizko zenbatekoa entitate taldearen araubide berezia aplikatzen duten gainerako entitateek ordaindu beharreko saldoen zenbatekoa baino handiago bada, soberakina konpentsatu ahal izanen da geroago aurkeztu dituzten aitorpen-likidazio bateratuetan, harik eta lau urte igaro arte soberakina izan zuten banakako aitorpen-likidazioak aurkeztu zirenetik.

Entitate taldeak, hala ere, beretzako den saldoaren itzulketa eskatu ahal izanen du, foru lege honen VII. tituluko II. kapituluaren xedatutakoaren arabera hori bidezkoa denean, eta hala eginez gero ezin izanen du saldo hori konpentsatu geroko aitorpen-likidazio bateratuetan, berdin dio zenbat denbora igarotzen den itzulketa egin arte. Taldearen araubidea aplikatzea aukeratzen duten enpresaburu edo profesionalei ez zaie aplikatuko foru lege honen 61.2 eta 62. artikuluetan xedatutakoa.

Entitate taldearen araubide berezia aplikatzeari uzten bazaio eta taldeko entitateei konpentsatzeko kopururen bat badago, kopuruok entitate horiei egotziko zaizkie araubide berezia aplikatu den azken urte naturaleko eragiketen zenbatekoaren

araberako proportzioan, foru lege honen 66. artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

3. Informazio analitikoko sistema eduki behar da, foru lege honen 108 octies artikuluko Bat idatz-zatian aipatutako eragiketetarako zuzenean edo zeharka, osorik edo zati batean erabilitako ondasun eta zerbitzuak egozteko zentzuzko irizpideetan oinarritua. Sistema horrek erakutsi beharko du nola erabili izan diren ondasun eta zerbitzu horiek harik eta azkenean taldekanpo aplikatu arte.

Informazio sistemaren barnean, justifikazio memoria baten bidez azalduko dira erabilitako egozpen irizpideak. Irizpide berdinak izanen dira taldeko entitate guztientzat, eta araubide berezia aplikatzen den zergaldi guztietan mantendu behar dira, ez badira zentzuzko arrazoiengatik aldatzen; arrazoi horiek memorian justifikatu behar dira.

Informazio sistema horrek zergaren preskripzio epea amaitu arte iraun behar du.

Bost.- Entitate taldeko entitateen batek banakako aitorpen-likidazioa epez kanpo aurkeztu bada, Zergei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 52. artikuluen arabera bidezkoak diren errekaruak eta interesak aplikatuko dira, eta horri dagokionez ez da kontuan hartuko banakako aitorpen-likidazio horren saldoa aurretik entitate taldearen aitorpen-likidazio bateratu batean aurkeztu izana, hala izanez gero.

Entitate taldearen aitorpen-likidazioen bat epez kanpo aurkeztu bada, Zergei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Legearen 52. artikuluan ezarritako errekaruak aitorpen-likidazio horren emaitzari aplikatuko zaizkie eta entitate nagusia izanen da horiek ordaintzearen erantzulea.

Sei.- Entitate taldearen araubide berezia aplikatzen duten entitateek solidarioki erantzunen dute araubide berezi horretatik sortutako zerga zorraren ordainketaz.

Zazpi.- Laugarren idatz-zatiko 3. puntuan aipatzen den informazio sistema ez edukitzea edo ez mantentzea entitate nagusiaren zerga arloko arauhaustetza hartuko da. Horren zehapena isuna izanen da: taldearen eragiketen zenbatekoaren %2.

Laugarren idatz-zatiko 3. puntuan aipatzen den informazio sistemaren okerreko informazioak edo hutsuneak entitate nagusiaren zerga arloko arauhaustetza hartuko dira. Horren zehapena isuna izanen da: hirugarrenei erositako ondasun eta zerbitzuen zenbatekoaren %10, erosketa horien gaineko informazioa falta bada edo okerra bada.

Aurreko bi paragrafoetan aipatutako zehapenak bateragarriak izanen dira Zergei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 68. artikulua aplikatuta ezartzen ahal direnekin.

Entitate nagusia izanen da subjektu arau-hauslea, entitate taldearen araubide bereziko betebeharrak berariazkoak betetzen ez direnean. Entitate taldearen araubide berezia aplikatzen duten gaineko entitateek solidarioki erantzunen dute zehapen horien ordainketaz.

Entitate taldearen araubide berezia aplikatzen duen entitate bakoitzak erantzunen du bere zerga betebeharrak egiten dituen arau-hausteez.

Zortzi.- Entitate taldearen araubide berezia aplikatzen duten entitateen betebeharrak egokiro betetzen ote diren ikusteko jarduketetan entitate nagusiarengana joko da, taldearen ordezkaria baita. Jarduketa horietan mendeko entitateengana ere jo ahal izanen da eta haiek jaramon egin beharko diote Nafarroako Zerga Ogasunari.

Entitate taldeko edozein entitateri egiaztapenak edo ikerketak egiten bazaizkio, jarduketa horiek Zergaren preskripzio epea etenen dute, taldeko entitateen multzo osoari dagokionez, entitate nagusiak jarduketa horien berri jasotzen duen unetik.

Araubide berezi honen inguruko egiaztapenen ondorioz egiten diren aktak eta likidazioak entitate nagusiari emanen zaizkio.

Zergei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Arau Orokorraren 139.1 artikuluan aurreikusitako konplexutasun bereziko egoera gertatzen dela

ulertuko da, araubide berezi hau aplikatzen denean.

Xedapen gehigarri bakarra. Erregelamenduzko arauak emateko gaikuntza.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen VIII. tituluko IX. kapituluaren xedatutakoaren ondorioz sortzen diren betebeharrak betetzeko baldintzak eta epeak erregelamendu bidez ezarriko dira.

Xedapen iragankor bakarra. Araubide bereziaren aplikazioa 2008. urtean.

Entitate taldearen araubide berezia 2008. urtean aplikatzeko, 108 nonies artikuluko Lau idatz-zatian ezarritakoaren arabera entitate nagusiak Nafarroako Zerga Ogasunari eman behar dion informazioaren jakinarazpena egiteko epea tributuek harmonizatzeko legegintzako foru dekretu honek indarra hartzen duenean hasiko da eta 2008ko urtarrilaren 31n amaituko da.

Halaber, araubide hori 2008an aplikatzeko, eta 108 sexies artikuluan ezarritakoari dagokionez, administrazio kontseiluen edo pareko organoen erabakiak epe berean hartu behar dira.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea

Tributuak harmonizatzeko legegintzako foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Lehenbiziko idatz-zatian xedatutakoa 2007ko uztailaren 6tik aurrera aplikatuko da.

Bigarren eta hirugarren idatz-zatietan xedatutakoa 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera Zerga sorrarazten duten eragiketei aplikatuko zaie.

1/2008 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 14koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusita 1/2008 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 14koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena, eta kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 54. artikulua eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 160. artikulua, hona erabakia:

1. 1/2008 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 14koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena, ezagutzen duela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1/2008 Legegintzako Foru Dekretua, urtarrilaren 14koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena.

ZIOEN AZALPENA

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 35.3. artikulua ezartzen du ezen Foru Komunitateari dagozkion zerga bereziak ordainarazteko unean-unean Estatuko lurraldean indarra duten oinarritzko printzipio, funtsezko arau eta arau formal berak ibiliko dituela hark. Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak aitortpena egin eta dirua pagatzeko ereduak onesten ahalko ditu, gutxienez ere araubide erkideko lurraldeko datu berak edukiko dituztenak, eta likidazioaldi bakoitzerako pagatzeko epeak adierazten ahalko ditu, Estatuko Administrazioak ezartzen dituenetatik sobera bereziko ez direnak.

Bestalde, Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak 54. artikuluko 1. idatz-zatian xedatzen du ezen Hitzarmen Ekonomikoarekin bat, tributu

araubide erkidearen aldaketa batek behartzen badu Estatuan unean-unean indarra duten arau berdin-berdinak, hots, funtsaz eta formaz berdinak, Foru Komunitatean aplikatzera, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuak haren esku utzirik, behar diren foru legeen mailako arauak ematen ahalko dituela tributu arloko foru legeak aldatzeko.

Nafarroako Gobernuaren xedapenei, aipatu legegintza delegatua dakartenean, harmonizazio tributarioko Legegintzako Foru Dekretuaren izena emanen zaie.

Estatuko 2008ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 51/2007 Legeak, hirurogeita bigarren xedapen gehigarrian, aldatu du Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legea, Zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziari dagokionez, zehatzago, honako hauei dagokienez: zergapeko egintza, zerga-tasak eta zergaren autolikidazioaren aurreko ikus-onespena. Horrek denak 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak. Gainera, egun horretatik aurrera, aipatutako 51/2007 Legeak indarrrik gabe utzi du Zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren kuotari egiten zaion kenkaria, auto berria erosi eta titularrak auto erabiliari behin betiko baja ematen dionean, zatikatzeko ("Prever Plana" izenekoa dela-eta egiten den kenkaria da).

2007ko abenduaren 31 arte, garraiobidearen zilindraiaren eta motor motaren arabera kalkulatzen ziren Zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziaren zerga-tasak. 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera, berriz, ibilgailuak eta gainerako garraiobideak bost epigrafetan sailkatuko dira, CO₂ko emisio ofizialen arabera. Salbuespena izanen dira 70/156/EEE Zuzentarauaren II. Eranskineko N2 eta N3 kategorietan jasotakoak, "quad" ibilgailuak, uretako motoak, jostetako ontziak, hegazkinak, hegazkin arinak eta gainerako aireontziak. Horiek 4. eta 5. epigrafeetan jaso dira, baina emisioak kontuan hartu gabe. Zein epigrafetan jasotzen den, horrek zehazten du aplikatu beharreko zerga-tasa.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da, lehen aipatutako legegintzarako eskuordetza erabiliz, tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu baten bidez Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzeko behar diren arauak ematea, abenduaren 3ko 14/2004 Foru

Legearen 54.1 artikularekin bat, Estatuarekin sinatutako Hitzarmen Ekonomikoaren 35. artikularen arabera Nafarroako Foru Komunitateak Estatuko lurraldean indarra duten arau berdin-berdinak -bai funtsari bai formari dagokionez- aplikatu behar dituen kasuak egokitzeko.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek atzerako eragina izanen du, haren ondorioak harmonizatu beharreko araubide erkideko arauen ondorioekin bat etor daitezten.

Horrenbestez, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak 2008ko urtarrilaren 14an egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

Artikulu bakarra.- Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzea.

Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legearen artikulua hauek aldatu eta ondoren azaldu bezala geldituko dira:

Bat.- 42. artikularen 1. eta 2. idatz-zatiak:

“1. Hitzarmen Ekonomikoan ezarritakoarekin bat, zergari atxikirik egonen dira:

a) Motorrez ibiltzen diren ibilgailu berri edo erabiliak lehenbizikoz eta behin betikoz matrikulatzea, kasu hauetan izan ezik:

1. Kontseiluaren 1970eko otsailaren 6ko 70/156/EEE Zuzentarauaren (Estatu kideek ibilgailu motordunei eta horien atoei buruz dituzten legeak elkarrengana hurbiltzeari buruzkoa) II. eranskineko testuan, 2007ko ekainaren 30ean indarrean dagoen horretan, N1, N2 eta N3 kategorietan jaso diren ibilgailuak, betiere, N1 kategoriei dagokionez, jarduera ekonomiko bati nabarmenki eragiten badiote. Jarduera ekonomiko bati nabarmenki eragiten zaiola joko da baldin eta, abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen (Balio Erantsiaren gaineko Zerga) 41. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, subjektu pasiboak, ibilgailuaren eskurapen edo inportazioa dela-eta, eskubidea badu jasandako edo ordaindutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuoten gutxienez %50eko kenkaria egiteko.

Dena den, Zerga atxikiko zaio ibilgailu horien lehenbiziko behin betiko matrikulazioari baldin eta etxebizitza gisa erabiltzeko moldatzen badira.

2. Aurreko 1. atalak aipatzen duen testuan M2 eta M3 kategorietan jaso diren ibilgailuak eta tranbiak.

3. Objektiboki soil-soilik industriarako, merkataritzarako, nekazaritzarako, medikuntzarako nahiz erabilera zientifikoetarako baliatzen diren ibilgailu-

ak, betiere Zerga Administrazioak behar bezala homologatu baditu ibilgailuen modeloak edo ibilgailuak banaka. Ondorio horietarako, ibilgailuek erabilera hori dutela joko da soilik bi eserleku badiutuzte (bata gidariarentzat eta bestea laguntzailearentzat), inolako eserleku gehigarririk nahiz horiek jartzeko ainguraketarik ez badute, zamarako guneak barneko bolumenaren %50 baino gehiago hartzen badu eta gune horretan alboetatik kanpora ikusi ezin bada.

4. Bi edo hiru gurpileko ziklomotorrak.

5. Motozikletak eta hiru gurpileko ibilgailuak -lau gurpileko zikloak ez-, betiere, bi kasuetarako, zilindraia ez bada 250 zentimetro kubikotik gorakoa, barne errektuntzako motorren kasuan, edo gehieneko potentzia garbia ez bada 16 kW-tik gorakoa, gainerako motorretan.

6. Mugikortasun murriztuko pertsonentzako ibilgailuak.

7. Ibilgailu bereziak, ez badira 47.1 artikuluko 4. epigrafean zehaztutako “quad” motako ibilgailuak.

8. Ibilgailu misto moldatzen ahal direnak, baldin eta karrozeriako sabaiko egituratik lurrerainoko altuera osoa 1.800 milimetrotik gorakoa bada, mendiko ibilgailuak ez badira, eta nabarmenki jarduera ekonomiko bati lotzen bazaizkie. Jarduera ekonomiko bati nabarmenki lotua dagoela joko da baldin eta, abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen (Balio Erantsiaren gaineko Zerga) 41. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, subjektu pasiboak, ibilgailuaren eskurapen edo inportazioa dela-eta, eskubidea badu jasandako edo ordaindutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuoten gutxienez %50eko kenkaria egiteko. Ondorio horietarako ez du garrantzirik izan aipatutako Foru Legearen arauen ondorioz kenkaria izateko eskubidearen beste edozein mugaren aplikazioak.

Dena den, ibilgailu horien Espainiako lehenbiziko behin betiko matrikulazioa zerga honen pean egonen da baldin eta etxebizitza gisa erabiltzeko moldatzen badira.

9. Indar Armatuek, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek, Autonomia Erkidegoetako Segurtasun Indar eta Kidegoek, Toki Korporazioko Segurtasun Indar eta Kidegoek eta Aduanen Zaintzak erabiltzen dituztenak, defentsa, zaintza eta segurtasun lanetan.

10. Autopistak eta errepideak zaintzeko eta horietan laguntza emateko diren eta, beren ezauzgarriengatik, beste deustarako erabili ezin diren ibilgailuak eta anbulantziak.

b) Jostetako eta ur kiroletako itsasontzien lehenbiziko matrikulazioa, berriak edo erabiliak izanik ere, baldin eta zortzi metrotik gorako luzera badute, ontzien matrikularen erregistroan, arruntean edo berezian, edo, erregistro horretan ezin inskribatu badira, lehenbiziko matrikulazioa dagokion kirol federazioan. Edonola ere, 47.1 artikuluko 4. epigrafean zehaztutako uretako motoen lehenbiziko matrikulazioa zergapean egonen da, luzera edozein izanik ere.

Luzera kalkulatzeko, kontuan hartuko da apirilaren 27ko 544/2007 Errege Dekretuan, jostetako ontziak banderapean jartzea eta matrikulatzea arautzen duen horretan (2007ko ekainaren 30ean indarrean den bertsioan) hala definitzen dena, ontziak matrikulatzeko Erregistroko zazpigarren Zerrendan.

Jostetako eta ur kiroletako ontzitzat hartuko dira honako hauek:

1. Ontzien matrikularen erregistroan, arruntean edo berezian, inskribaturik dauden ontziak, seigarren edo zazpigarren zerrendetan, edo dagokion kirol federazioaren erregistroan inskribaturik daudenak.

2. Aurreko 1. paragrafoan aipatutakoez kanpoko ontziak, baldin eta jostetako nabigazio pribaturako erabiltzen badira, abenduaren 28ko 38/1992 Legeko (Zerga Bereziei buruzkoa) 4. artikuluko 13. ataleko definizioarekin bat.

c) Motor mekanikoa duten hegazkin, hegazkin arin eta gainerako aireontzien, berrien edo erabiltzen lehenbiziko matrikulazioa Aireontzien Erregistroan, honako hauena izan ezik:

1. Beren ezaugarriak direla-eta soilik nekazaritzako edo oihaneko lanetarako edo eri eta zaurituen garraiorako erabiltzen ahal diren aireontziak.

2. Aireratzean gehienez ere 1.550 kilogramoko zama duten aireontziak, Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiak emandako ziurtagiriaren arabera.

d) Aurreko letretan zehaztutako garraiobideak Espainiako lurraldean erabiltzea edo zirkulatzea, baldin eta behin betiko matrikulazioa behar badute aipatutako lurraldean eta ez bada halakorik eskatu erabiltzen hasi ondoko hogeita hamar egunetan, betiere matrikulazioa Nafarroan egin behar bada. Epe hori hirurogei egunekoa izanen da baldin eta titularraren ohiko helbidea Espainiako lurraldera aldatu izanagatik erabiltzen badira Espainiako lurraldean, betiere aplikatzen ahal bada Foru Lege honetako 43. artikuluko 1.l) idatz-zatian jasotako kerkaria.

Ondorio horietarako, Espainiako lurraldean zirkulatzen edo erabiltzen hasitako datatzat honako hauek hartuko dira:

1. Aldi baterako inportazioko edo matrikula turistikoko araubidepean egon diren garraiobideak baldin badira, araubide horiek bazter utzi edo iraungi diren data.

2. Gainerako kasuetan, garraiobidea Espainiako lurraldean sartutako data. Data modu frogagarrian ageri ez bada, erabileraren hasierako datatzat joko da honako bi hauen ondorengoa:

1'. Garraiobideaz jabetutako data.

2'. Interesduna Espainiako lurraldean bizitzen hasi dela jotzen den data, edo aipatutako lurraldean establezimendu baten titular izaten hasten den data.

2. a) Arestiko 1.a) idatz-zatian eta foru lege honen 47. artikuluko 1. idatz-zatian aipatutako ibilgailuak mugatzeko eta zehazteko, horietan berariaz aurreikusi ez diren kasuetarako, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuak onetsitako Ibilgailuen Erregelamendu Orokorren II. eranskineko definizioak eta kategoriak erabiliko dira, 2007ko ekainaren 30ean indarrean den bertsioan.

b) Foru Lege honen ondorioetarako, ibilgailu berritatzat joko dira halakotzat hartzen direnak abenduaren 30eko Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 19/1992 Foru Legean ezarritakoarekin bat.

c) Arestiko 1.a) idatz-zatiko 9. eta 10. ataletan zergapean ez egoteko adierazten diren kasuak aplikatzeko, beharrezkoa izanen da alde zuzenetik Zerga Administrazioaren aitortzea, erregelamenduz ezarritako moduan.

Zergapean ez dauden kasu guztietan beharrezkoa izanen da Zerga Administrazioan adierazpen bat aurkeztea Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ezarritako leku, modu, epe eta inprimakiak baliatuz. Paragrafo honetan aurreikusitakotik kanpo geldituko dira Zerga Administrazioak homologatutako ibilgailuak.”

Bi.- 47. artikulua:

“47. artikulua. Zerga-tasak.

1. Aplikatzekoak diren zerga-tasak zehazteko epigrafe hauek ezarri dira:

1. epigrafea.

a) CO₂ko emisio ofizialak gehienez 120 g/km-koak dituzten ibilgailuak, “quad” motako ibilgailuak izan ezik.

b) Motor bakarreko ibilgailuak, barne errekontzakoak ez badira, "quad" motako ibilgailuak izan ezik.

2. epigrafea.

CO₂ko emisio ofizialak 120 g/km baino gehiagokoak eta 160 g/km baino gutxiagokoak dituzten ibilgailuak, "quad" motako ibilgailuak izan ezik.

3. epigrafea.

CO₂ko emisio ofizialak 160 g/km-koak edo gehiagokoak eta 200 g/km baino gutxiagokoak dituzten ibilgailuak, "quad" motako ibilgailuak izan ezik.

4. epigrafea.

a) CO₂ko emisio ofizialak 200 g/km-koak edo gehiagokoak dituzten ibilgailuak, "quad" motako ibilgailuak izan ezik.

b) CO₂ko emisioen neurketa behar duten ibilgailuak, horien frogagiririk ez dagoenean.

c) Etxebizitza gisa moldatu eta N2 eta N3 kategorietan jaso diren ibilgailuak.

d) "Quad" motako ibilgailuak. Hona zer hartzen den "quad" motako ibilgailutzat: lau gurpil edo gehiagoko ibilgailua, eskulekua duena gidagailu, gidaria zangalatrau doana eta errepidetik kanpo ibiltzeko trakzio sistema egokia duena.

e) Uretako motoak. Hona zer hartzen den "uretako mototzat": motor batek higiarazitako ontzia, pertsona batek edo gehiagok (eserita edo belauniko) maneiatzeko proiektatua, krosko baten mugen gaineko aldean, ez barneko aldean.

5. epigrafea.

a) 1., 2., 3. edo 4. epigrafeetan jaso ez diren ibilgailuak.

b) Jostetako eta ur kiroletako itsasontziak, uretako motoak izan ezik.

c) Hegazkinak, hegazkin arinak eta bestelako aireontziak.

2. Hona hemen aplikatzekoak diren zergatasak:

1. epigrafea.	%0.
2. epigrafea.	%4,75.
3. epigrafea.	%9,75.
4. epigrafea.	%14,75.
5. epigrafea.	%12.

3. Sortzapen unean indarrean den zerga-tasa aplikatuko da.

4. Ibilgailuaren fabrikatzaileak edo inportatzaileak horretarako emandako ziurtagiri baten bidez frogatuko dira CO₂ko emisio ofizialak, salbu ibilgailuaren azterketa teknikoaren txartelean jasotzen bada edo ibilgailu bakoitzerako agiri ofizial batean.

Hiru.- 48. artikulua:

"48. artikulua. Zergaren likidazioa eta ordainketa.

1. Zergaren autolikidazioa egin beharko da eta, ordainketa egiteko, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak tokiari, moduari, epeei eta inprimakiei buruz finkatzen dituen arauak bete beharko ditu subjektu pasiboak.

2. Organo eskudunaren aurrean behin betikoz matrikulatu aurretik, zerga administrazioak autolikidazioa ikus-onetsi beharko du, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak finkatzen duen moduan. Autolikidazioaren ondoriozko kuota txikiagoa baldin bada Ekonomia eta Ogasun Departamentuak onetsi dituen salmentarako batez besteko prezioak aplikatuz gero aterako litzatekeena baino, ikus-onespena eman aurretik Zerga Administrazioak zerga-oinarrian agertzen den zenbatekoa edo balioa egiaztatu ahal izanen du. Egiaztapena Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 44. artikuluan ezarritakoari jarraikiz egingen da. Aintzat hartuko diren batez besteko prezioak interesdunak Zerga Administrazioan ikus-onespena eskatzen duenean indarra dutenak izanen dira. Aitortutako zenbatekoa edo balioa aldeztu aurretik egiaztatzen ahalko da, orobat, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak onesten dituen tauletan ez badago batez besteko salmenta preziorik aurkeztutako autolikidazioaren xede den garraibiderako.

Egiaztapena egiteko gehieneko epea hirurogei egunekoa izanen da, garraibidearen agiriak Zerga Administrazioaren eskura jartzen den egunetik hasita. Epe horretan egiaztapena egiten ez bada, zergadunak aitortutako zenbateko- edo balio-oinarria behin-behinekoz ikus-onetsiko da. Epea kalkulatzeari dagokionez, jakinarazi beharra bete dela ulertzeko aski izanen da egiaztatzea ebazpenaren testu bakarra biltzen duen jakinarazpena egiten saiatu direla, behin bederen. Ebazpena emateko epearen barrenean ez dira kontatuko ez erregelamenduz ezartzen diren etenaldi arazoituak, ez eta Zerga Administrazioari egozteko modukoak ez diren arrazoiengatik prozeduran gertatzen diren atzerapenak ere. Ikus-onespena behin-behinekoz ematen ahalko da, zenbatekoa edo balioa aldeztu aurretik egiaztatu gabe, autolikidazioa aurkeztzen den unean berean. Kode elektronikoko bat emanez egiten ahalko da.

Ikus-onespena behin-behinekoz emateak ez du eragotziko ondoren Administrazioak autolikidazioa bere elementu guztietan egiaztatzea.

3. Garraibidearen behin betiko matrikulazioa egiteko, zerga ordaindu dela frogatu beharko da edo, hala badagokio, ordaindu beharrik ez duela edo salbuetsita dagoela.”

Xedapen indargabetzaile bakarra. Agindu jakin batzuk indargabetzea.

Indargabeturik gelditzen dira Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legearen agindu hauek:

1. 47 bis artikulua, bat eginez Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea

aldatzen duen Tributu harmonizazioari buruzko urtarrilaren 22ko 2/2007 Legegintzako Foru Dekretuaren xedapen indargabetzaile bakarrarekin.

2. Seigarren xedapen iragankorreko 3. idatz-zatia.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Tributu harmonizazioari buruzko Legegintzako Foru Dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra, eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete	47,00 euro
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko	1,25 »
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko	1,40 »